

## **AKTA**

### **Udalaren Ohiko Osoko Bilkura**

**ORGANOA:** Udalbatza

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**EGUNA:** 2015-07-22 (09)

**ORDUA:** 13:00 – 13:04

**LEKUA:** Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

#### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Juan Jose Txurruka Txurruka (BILDU)

**Zinegotziak:** Josune Baskaran Etxeberria (EH BILDU)  
Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Iratxe Lasa Arana (EH BILDU)  
Joseba Iraolagoitia Martinez (EH BILDU)  
Isabel Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Andoni Malaxetxebarria Kaltzakorta (EAJ/PNV)  
Luis Mari Malaxetxebarria Elordi (EAJ/PNV)  
Ainara Gandiaga Longarte (EAJ/PNV)  
Alex Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)  
Sorkunde Maguregi Maguregi (EAJ/PNV)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementería Otxandio

#### **AZTERGAIK:**

1.- 35/02 (herriko tabernen) sententziari buruzko mozioa irakurri eta, hala badagokio, onartzea.

**1.- 35/02 (HERRIKO TABERNEN) SENTENTZIARI BURUZKO MOZIOA IRAKURRI  
ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA**

1205 – 2015/32 KODEA

Josune Baskaran Etxeberriak honako testua irakurri du eta Udalbatzak aho batez onartu du:

“Garai politiko berri eta itxaropentsuak irekiak diren uneotan, instituzio, erakunde, talde eta norbanako andanak aldarrikatu du egungo testuinguru politikoan horrelako, eta ondotik datozen, makroepaiketa politikoek lekurik ez dutela. Iraganeko argazkiak direla horiek.

"Dena ETA da" teoriaren aitzakipean ireki zen 35/02 epaia orain dela hamabi urte baino gehiago. Oinarri beretik etorri ziren orduan hainbat egunkariren itxiera, indar politikoaren ilegalizazioak eta ehunka pertsonen atxilotze eta espetxeratzea. Eskubide zibil eta politikoaren urraketa ageriko honek orotariko erakunde, norbanako eta instituzioen arbuiatze argia ekarri du urteotan. Baita nazioarteko erakunde eta instantzia juridikoena ere.

Orain, epai honen azken sententzia jakinarazi berri den honetan, 104 herriko taberna konfiskatu eta hainbat laguni espetxe zigorra ezarria izan zaie Madrildik politika egiteagatik; guzti honek oinarri oso ezkorra ezarriz ondoren datozen epaiketei begira eta egun bizi dugun egoera politikoari begira ere.

Hau dela-eta, Markina-Xemeingo EAJ eta EH Bildu udal taldeek ondokoa adierazten dute:

- Eskubide zibil eta politikoaren defentsan, horrelako egoerak atzerapausu nabarmenak dira gure herrian. Are gehiago egungo testuinguru politikoan. Eskubide guztiak pertsona guztientzat. Makroepaiketa politikoekin amaitzeko eskatzen dugu.

- Euskal Herriko beste 104 elkarteren artean gure herriko AMAIUR kultur elkartearen konfiskazio salatzen dogu.

- Egun bizi dugun egoera politiko berrian horrelako gertaerek lekurik ez dutela adierazi nahi dugu, eta gure salaketa irmoa mahaigaineratu. Hala nola, bake iraunkor eta justu bat eraikitzeko uneotan, horrelako egoerak eman ez daitezela lan egingo dugula nabarmentzen dugu Markina-Xemeingo Udaletik”.

Andoni Malaxetxebarria Kaltzakortak esan du erabat ados dagoela Udalak osoko bilkuran onartutako errebindikazioarekin, eta herrian kartelak jartzearekin ere, arazoa aldarrikatu eta agerian uzteko. Ez, oster, egindako pintadekin. Bere esanetan, edozein aldarrikapen da zilegi, baina denonak diren ondasunak hondatu barik.

ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 13:04ETAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,  
Juan Jose Txurruka Txurruka

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,  
Iratxe Rementeria Otxandio

